

# **XXVI. Maddalen sariak**

**2013**

Maddalen Sarien helburua Erreterian bizi direnen edo ikasten dutenen artean euskaraz idazteko ohitura sustatzea da.

## Parte hartzeko baldintzak

Erreterian bizitzea edota Erreterian Lehen Hezkuntzan, DBHn, Batxilergoan edo Lanbide Eskolan aritzea.

Euskaraz idatzitako lanak izatea.

Aurkeztutako lanak jatorrizkoak eta argitara eman gabekoak izatea.

Partaide bakoitzak lan bakarra aurkeztuko du, ordenagailuz idatzia, Din A-4 neurrian eta lerroarte bikoitzean. Letra mota Arial edo antzekoa izango da, eta tamaina, 12.

Poesia sailean, 1. mailakoek 24 lerro idatzi beharko dituzte; 2. mailakoek, 32; eta 3. mailakoek, 40 lerro. Bertsolaritza lehiaketatik kanpo geratuko da.

Prosa sailean, gehienez 2 orrialde idatzi beharko dira.

## Sariaren zenbatekoa

Lanak honela sarituko dira:

**1. maila:** Lehen Hezkuntza (2. eta 3. Zikloak).

1. saria: 100 € material didaktikoa erosteko.
2. saria: 70 € material didaktikoa erosteko.
3. saria: 50 € material didaktikoa erosteko.

**2. maila:** DBH 1 eta DBH 2.

1. saria: 100 € dirutan.
2. saria: 70 € dirutan.
3. saria: 50 € dirutan.

**3. maila:** DBH 3, DBH 4, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

1. saria: 160 € dirutan.
2. saria: 100 € dirutan.
3. saria: 70 € dirutan.

## Lanak aurkezteko era

Bi gutun-azal aurkeztu behar dira:

1. gutun-azala: kopia bat sartu behar da (izengoitia jarri eta sinadurarik ez). Gutun-azalaren kanpoko aldean, datu hauek adierazi behar dira: "Maddalen Sariak", ikasmaila, zikloa, adina, eta ikastetxearen izena.

2. gutun-azala (1. gutun-azalaren barruan sartuko da, lanarekin batera): Egilearen datu pertsonalak: izen-abizenak eta izengoitia, ikastetxearen izena, ikasmaila, adina, helbidea, argazkia eta harremanetan jartzeko telefono-zenbakia. Gutun-azalaren kanpoko aldean, izengoitia jarri behar da.

## Epaimahaia

Udalak epaimahaia izendatuko du eta epaimahaiaren erabakia apela ezina izango da.

Literatura-lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriekin bat egitea dakar. Oinarri horietan aurreikusitako diren gertaera guztiak epaimahaiak ebatziko ditu.

Sariak eman gabe geratu ahal izango dira, aurkeztutako lanek ez badute eskatzen den kalitate-maila.

## Non aurkeztu lanak

Errenteriako Udalaren Erregistroan.

## Aurkeztutako lanen jabetza

Saritutako lanak Udalaren jabetzakoak dira, eta Udalak argitaratu ahal izango ditu.

Saritu gabeko lanak eta dagozkien plikak ez dira itzuliko, eta suntsitu egingo dira literatura-lehiaketako irabazleak iragarri ondoren.

## Lanak aurkezteko epea

Apirilaren 19ra arte, ostirala.

## INFORMAZIOA:

Euskara Departamentua - Tel.: 943 44 96 13  
e-maila: euskara@errenteria.net



**Errenteriako Udala**



**HERRI BIZIA**  
*etorkizunaren bidean*



**euskara**  
**departamentua**  
errenteriako udala